

# ARALAR'KO GORABERAK

ANTONIO LABAYEN TOLEDO

## Asiera

Euskal Errian diran orrenbeste mendi zarren artean, Aralar izenaren barruan sartzen diranak, osatzen dute Euskal-Erriko mendi-sail zabal eta aundiena (45 Km. omen ditu ta 30 errien mugak ikuturik: Irurtzundik Tolosara (Bedaio), eta emendik Ataun eta Alsasutik barrena ostera Irurtzuna lotzen da Aralarko kate luzea aberatsenetako bat, goituenetako bat eta ederrenetako bat... ez, guztiz ederrena.

Arbol bat dezu gure sorterrian «bedeinkatua ta guztiz maitatua ta mendi bat santua ta guztion gogokoa: Aralarmendia.

Azkeneko euskaldunak, noizbait azkena etortzen bazaigu beñepein, Aralarren izango du amaia; emen izan bai zuen pere asiera.

Aralarko berri askok dakite nik baño obeki; gutxi ordea dakiten ori, erakustera, leiatu dira.

Orregatik dakidan pixka, neronek ikusia ta ikasi gabe Aralarren lillurak mintzo araziko didana azaltzera.

## Artzaintza

Aralar Izenak adierazten du toki au emakorra dala, bazka ta lar gozoduna. Mendi muturretako arkaiztegiak kendu ezkeru, gibelean, ordeka ta zelai zabalak erruz dauzka. Ango makal ta masalletan abere mota asko bizi dira; ardiak eta bildotxak, arkume ta axuriak, larre bei ta idizkoak, beor eta motxalak, auntsak eta... akerrak. Onek esan nai du, Naparroako ya Gipuzkoako artzai askok ogibidea aspalditandik Aralarren arkitu dutela. Iztueta kondairegille euskaldunak, orain larogei urte, Aralarmendian 800 artzai aundi ta txiki bizitzen zirala jotzen zuan ta 40.000 ardi gutxi gora-bera.

Geroztik, esan liteke azienda geitu dala, artzaiak ugaritu ezpadira ere. Gutxi ezagutu dute Iztuetak bezin ongi Aralar-ko biztanlea ta auen izate nekekorra.

Ark zekiskien ondo ardien eta gañerako abereen etekiñak, gaitzak eta eritasunak, belarrietan ipiñi oi dizkioten markak; artzai txistuen otsak eta irrintziak eta baita ere sarrietako baratzatxuetan noiz eltzen ziran azak eta kurkutxak. Ark zekien ondo txaboletako bizimaña guztia. Artzaingo osoa bere larrialdi ugari ta lasai-une urriaz Iztueta goitarraren kondairan irakurri lezake gogo duenak, ta ikasi du euskel izen pilla ederra Aralarmendian sortua.

Aralar mendia artzai mendia baita.

Artzai jendea da emen nagusi ta jabea.

Alperrik, antziñatik etsai asko mendi ortatik bialdu naiean ibilli zaie: errege-basoen zaindariak. Orreagako (Roncesvallesko) kalonjeak, diputadu piñuzaleak, eta burni ta kobrezko meatzak ontzen dabiltzanak. Alperrik! Aralarko erregea artzaia da.

Ordea, etsai altzu ta bildurgarria da urtero agertzen zaiona: negua!

Udazkena aurrera zamar dijoanean, ipar aizeak lenengo elur malutak ekartzen ditu.

Ura estutasuna! Artaldea alik eta laisterrena

bildu bearra dago artokian. Larri dabil jendea. Artzai nagusiaren aginduak txistu zorrotzak dira aizea urratuaz dijozenak. Artzai mutillak albatan batetik bestera ardi galduak ezin bilduaz, alegintzen dira. Artzañorak (artzazakurrak) bere zaunka ta itzul-inguruaz urtebildotsak ikaratzen dituzte artalderuntz bultzarik.

Azkenean guztia gertu dago.

Asto ta beorretan tresna ta bizigai dana estu-estu zamatu dituzte: kaiku ta taloburniak, gatzagipoto ta ezauntza guztia. Eta zamariak aurretik dirala artaldea, astiro-astiro bideari lotzen da, mendirik bera ardi zar eta ari kopet-gogorrek buru dirala. Artzañoak zaindari saotzean ta guztien txistu, beka, zaunka, irrintzi ta joaleen oztaz erri ta ibarrak beterik.


Aralarmendia ixilik gelditzen da: utzak saroi ta txabolak, illa bezela basamortu zuria. Negua. Artzaiaren etsai beldurgarriena au da. Baan au ere mendeatuko du. Ez du luzaroan iraungo elurteak. Noiz naiz ere negu gorlanean ere ego aizeak erraz urtutzen ditu Aralarko elur eta izotz autskorrak. Eta goietan, elurak anarteraño zapaldutako belardietan, apuru beltzaren lorea agertzen azia da. Au omen da belar urte ona izango dan mezulari ziurrena. Apuru beltza, edelweis ez izanarren artzaiaren zoriona da, la Aralarmendiko lore goitarrena.

Artzaia baita Aralarko erregea.

## Malloak

Araiz eta Larraungo ibarren bitartean dauden Aralarmendiai *Malloak* deitzen diote.

Malloa erderaz Alpea esango bagenu bezela da. Malloak, Aralarmendiak beste iñon ez duan gauza berezi bat ba dute: arrokeria. Errezkadan eta besotik alkarri elduta eta disdiratzen daude andre eskongai ta ederren antzera. Edozein ausartzen da garaitzeko asmotan ez bada gisa-seme adoretua eta ez baditu anka zain sailduak! Malda erpiñak zutik egoten gaitz dan lekuak, ez da, ez orga, ez gurdirik iñolaz malda oriek igo lotzazkenik.





*Bizkainon Txabola*

Bai ordea, toki, belarretan eta baska gozoetan ugariak. Belar metak burnizko kable lodiari lotuta jexi arazten dituzte abiaduran, txistuaren otsa ta sua dariotela trenak beselaxe. Au bai da Aralarmendiko burni-bidea.

Era ontan bi bider urtero Albiasu, Erraskin, Iribas, Baraibar ta amaika errixka geiagota mandio ta saletxeak belarrondoaz gañezka dariozte.

Berau da *Malloako* ogibide ta ondasun bakarra. Azoketan geien onirixten diran arkumeak *Malloan* sabelaldia igaro ondoren Iruña, Lekun-

berri, Irurzun eta Tolosa zaldien bizkarrean burusi (manta) gorriaz erdi estaldurik eramaten dituztenak dira.

Sisa ta perretxikuak badago *Mallotan* bere tontorretan arrikoskorak aña.

Malloak bere izenak badituzte: bata *Malloa zarra* da (Balerdi), Azkarate'ko gañean bere bizkarra makurtzen duana urteen mendean. Arretaz ibilli bear da ementxe; zenbait lekutan arrastaka obe zutik baño, amilduta ez badegu izan nai putreen janari.

Gero *Intza'ko Torrea (Irumugarrieta)* dator bere 1427 metro goituera altsuaz Aralar'ko erre-giña dana. Agur! Ez al ditu koplari arloten batek ala zure inguruko zaldun galaiak belarria axku-reta onoko eresi sar au entzun araziaz:

«Erregiña ta saratsa  
Oian ederra boja  
Naparruako errege jaunak  
Egin omen du promesa  
Egin omen du promesa...»

Auntzago *Mallo* gazteak daude: *Baratzail, Illo-bi, Ardigain, Asto-punta, Aitztxuri*. Ora nun aita-tu ditudan guztiak: *Malloak*. Arrizko birgiñak, bularrak urritzaren lore zuriak, apainduak eta edergailluz disdiratzen daudenak neskutzen an-tzera.

### Ikazkiña

Benola, ikazkin ataundar batek, bere bizi gu-zian Lizarrustiko basoetan ikazkintzan aritua, menditik alde egin zuan ogibide obe ta eroso-agoa izan nairik.

Oso urruti ez dagon burni ola ta lantegi aun-di batean bere indarra ta sasoia pozik artu zi-tuzten.

Gure gizonak, andik aurrera, aloger ona ira-bazi-ta ogi zuri ta biguña egunero jan zuan; egunero lo egiten zuan oe biguñean; neguan, lasa asko legorrean eta beti aterpean ez zan bustiagatik eta otzagatik estutzen; aiza bizi zan; jator bizi zan gure gizona. Bañan bealdeak bere alderdi txarrak baditu: osasuna makaldu zi-tzaion; lan gogorrek gutxitu zion korputzaren indarra; ez jakiñaren lasaitasuna galdu zuan gi-zonaren eta bizitzaren garrastasun mingotza ezagaturik; diru pixka baten jabe egin zan. Ura gose txarra diru gosea!

Orduan, koplakarien eresia itunkiro oiukatu zezaken:

Urruti nere menditik  
Joan nintzan dirutu nairik

Urrutietan laister biotza  
Naigabez erdibiturik  
Gelditu nintzan tristerik  
Pake santua galdurik.

Andik aurrera, igande ta jai guzietan, opo-rraldi bakoitzean, gizon ura goizean goizetik, eguna argitu baño len Aralaruntz abitzen zan bere kolkoko gaitzak sendatu naiean, ibilli ta ibilli etzan gelditzen iñon. Bakarrik, txondarrak keetan, usaintzu zekuskinean eta mendiko lan-tegien aurrean, adi-adi begira jartzen zan eta leku aiek malakoak zerizkiola usten zituan.

Artzai ta mendi mutillak kaletar, ustez ongi bizitzez okitua, toki aietan oartzen zutenean be-kaizkeriaz, begiaz jarraitzen zioten. Ez zuten asko uste, gizon ark damua barruan sartua zeu-kala ezin izan zitekeelako berriro ikaskiña.

### Arritzagatik Igaratzara

Aralar'ko kaltzada zarrena agian da. Amezke-tatik asi ta *Arritzagatik* barrena *Igaratzaño* di-joana. Denbora bateko joan-etorri, ardn, ta gari karraio ta edozein beste salgai guztiak, mando bizkarretan bide onetatik ibiltzen omen ziran. Mando ta mandazai gaxoak bide onetan jasan-go zituztenak!

Erruki ditut. Biderik oker, arritsu makur eta malkarragoak gutxi iñungo tokietan. Inpernu'ko bidea da egietan! Zulo-zuolan dijoa mendi ta errekaeren artean estutua, luzea ta arrikoskorrez josia. A zer nolako bidea oin azpiak minbera-tzeko. Era onetan, bi ordu bañan geiago bear dira *Arritzaga'ko* meatzera irixteko.

Oriango aldian geldirik dago eta ez da iñor ikusten mina zar onetan. Beste ordu bete bear degu Aralar goiko ordeka, larre ta zelai zabale-tara eltzeko.

Beriala astuko ditugu bide sakarraren nekeak bein ordekek arrapatu ezkerero. Bai toki, leun, garbi ta zabala; bealdean ez bezelako lasata-suna dago. Legu egokiagorik gutxi au baño, nun nai dala ere. Ez du berdiñik beste mendietako

zelaiaz; ez Aitzkorri'ko Urbi, ez Gorbeia'ko Arraba, ez Ory'ko Erroimendi, ez dira Aralar'ko zelaien mallara irixten.

Oin-giro leun onetatik zear, uste gabe *Igaratza'n* gera. *Igaratza*: Gipuzkoa'ko azkenengo muturra, bañan nere iritzian poliftenetakoa; Donostia'ren urrengo edo. Mikeleteak orain dala ama-bost edo ogei urte bizitutako etxea birrinduta dago. Zer da ori ango inguruko edertasunaren aldamenean?... Oianaren erdian dago; obeto zurmardia da ura. Iturri ugaria bertan, pago lodienak itzala egiten diote, ta landare osasuntzuenak erretzen dira mendi lilitegi artan.

.....  
*1927-1977 Nere urrezko eztaiak  
ARALAR mendiarekin*

Berrogeitamar urte igarota berriz Aralar menditik barrera ibil al izatea ez da edozeñi ematen zaion doaia. Ez da, beintzat guztioi opa izan zaien almena. Onoko Aralar-zale zaar oni, Jainkoa'ri esker ez zaio ukatu zorion ori. Orregatik Aralar mendiari azken begiratu maitekor bat botiaz gaur nola ikusten dudan esango dizuet itz gutxieta. Urrututil so eginda lenago bezin eder; bertatik begiratuta zerbait itsusitu ta aldatua. Gauza ba'nintz «irudi» berri bat «marrastu» bearko nuke... zorri-burru... Tokitan ondame-nak agertzen ba'zaizkio ezin uka aurrerapenez ere apaundurik dagoala.

50 urteotan bidezabal asko urratu dizkiote. Orain, Aralar mendiaren zear, mutur batetik bestera lasa-lasa joan diteke. Inguruko errixka guztietara eroso eldu gintezke eta bereziki *Aralar'ko San Migel Goi-aingeruaren* Eliza aundi zabalera. Migel Goi-aingeruaren jarleku doatsua ederturik dago. Eta ango Ostatu-etxe, ta arroztegi bikaña erabat berritu ta apain ornitua, tokirik egokiena dugu aize osasungarriz gure gorputz eta animasendotzeko. Ez da, beraz, arritzekoa bertara jende-talde aundiak eltzen ba-dira. Gaztejolaz eta txango atsegiñetara batzuk; erromes bezela bestetzuk leku saindu artan otoitzez Mikel Aingerua'ri laguntza eskatzera.

Ez al da egia laguntza ori beñere baño bearezkoagoa duguna aldi larri auetan?... Bayetz esango nuke...

Aralar, beste Euskal Erri'ko bazter askoren antzera oian eta basoen edertasunez murrizturik dago; artzai eta nekazariak gutxitu dira; ugaritu da aitzitik azari ta beste pizti maltzurrez. Beste kalte asko gertatu zaizkigu zintzotazun eta edertasunea asko galdurik... Nola nai Jainkoak gure lurra gizonaren esku utzia du; eta ondo azi eta ezitako gizonak berriz gure lurraldeak ondu ta edertu litzazteke guztion mesedetarako.

Norbaitek galdegingo ba'lit nolako ARALAR ikusi nai nukean... Erantzungo nioke, jakiña, nere gazte denborakoa maiteena litzaidakela. Oñez, Amezketa ta Betelu'tik igotzen giñan, garai artakoa. Larogei urteruntz dijoan agure zar onek zer nai duzu besterik esan dezan?... Bego! Aralar beti zutik! eta gafñean San Migel aingerua Euskal-Erriaren zaindari.